

Jorge Cortes Izal

(1930-2010)

ZABALETA, Patxi

1. Bizitza, ikasketak eta lanbideak

Jorge Cortes Izal Otsagabian jaio zen 1930eko apirilaren 30ean. Iruñean hil zen 2010eko urtarrilaren 12an; beraz, 80 urte bete baino hiru hilabete lehenago.

Jorge Cortes Izalen aitak Luis Kortès izena zuen; Aragoiko Petilla Nafarroako herrian sortua zen, nahiz eta Erronkariko Garden hazi zen, gaztetan Garden bizitu zen; Erronkariko «uskaraz mintzatzen zena». Luis Kortès ogibidez «ministrantea» zen: gaurko praktikantea edo erizaina eta horzlaria aldi berean. Lanbide hori garatu zuen urte luzez Otsagabian.

Jorge Cortesen ama berriz, Teresa Izal izenekoa, Otsagabiakoa zen sortzez eta jatorriz. Gaixotasun luze eta larri batek jota oheratuta bizi zen Jorge Cortes Izal jaio baino bi urte lehengotik. 1948an hil zen, beraz Jorge Cortes Izalek hamazortzi urte zituelarik, semeak inoiz zutik ezagutu izan gabe.

Jorge jaio zenean, ama Teresa gaixoak esnerik ez izaki (ezta ezpainak bustitzeko horitzarik ere) eta horregatik, bularra eman ziezaiokeen emakumea bilatu behar izan zuten eta Otsagabiako Txarandel etxeko etxekoandrea aurkitu zuten, Juanita Contin izenekoa. Juanitak bere umea bazuen eta hark hazi zituen bi haurrak, Jorge eta berea. Jorgeri, berezko ama Teresari ama deitzen erakutsi zioten eta ugazamari berriz, «Amaño» deitzen.

Txarandel etxaldeak herrian bertan bazuen etxe bat eta mendialdean baserria. Udan baserrian bizitzen ziren; neguan berriz, herriko etxean. Jorge

Txarandelen bi urte arte eduki zuten eta gero gurasoen etxera eraman. Baina senide bezalako harremana bizitza osoan mantendu zuen Jorgek eta anaiatzat bezala zeukan bere adineko Txarandelgo berezko semea, Alfontso Sola Contin. Harremanari zahartu eta ere eutsi zioten, Alfontso Viana-ko irian bizitzera joanda zelarik.

Jorge Cortes Izalek Komertzioko karrerako ikasketak egin zituen, nahiz eta ez zituen guztiz inoiz bukatu. Beste ikasketa askotan ere hasi zen eta arlo anitzetan autodidakta kutsua zeukan. Berezkoa zuen ezinegonak eta jakin-nahiak eramaten zuten maiz ikasketak, lanbideak, kezak eta ardurak behin eta berriro hasi eta berritzera.

Lanbidez Jorge Cortes Izal komertzioko eta zerbitzuetako arloetan aritutakoa zen. Lehenengo lana «Almacenes Escudero» izeneko enpresaren saltzaile arduraduna izan zuen eta zeregin horretarako Madrilén egon zen bizitzeko aldi batez; hurrena, Iruñera itzulita, arropa garbitzeko eta plantxatzeko enpresa ttipi bat eraiki zuen Aita Calatayud kalean 1.970. urtea arte; eta hirugarrenik, «Negra Industrial Reprográfica» izeneko enpresako frankizia baten ordezkari eta saltzaile moduan aritu zen, 59 urte zeukalarik, beraz, 1980an, bihotzekoak eman eta lanerako gaigabetze osoa aitortu zioten arte.

Jorge Cortes Izal jauna Esther Leon Agoizko andrearekin ezkondu zen. Beraien bizimodua, pentsakera eta jarrerak beste arazo arrunt eta anitz guztietaz at, Ester Leonen aita Aurelio Leon Inda eta bere anaia Jaimen Leon Inda 1936ko gerratearen hasieran fusilatua izanaren zama astunak baldintzatu zituen bizitza osoan. Izan ere, Nafarroan altxamenduaren hasiera hartan, fronteetan hildako milakakoetatuz gainera, inolako epaiketarik, defentsarik eta ondoreko errekonozimendurik gabe eraildako 3.554 lagun en arteko bi izan ziren Esterren aita eta osaba, Ester ume gorria zelarik anartean. Heriotza haiek ez ziren Erregistro Zibilean inskribatuak izaten eta ondoreko urteetan hiltzaile nagusiek erakutsitako lotsagabekeriaren adierazpen latzek zirrara eta harridura eragiten dute.

2. Euskararen aldeko ahaleginak frankismo garaian

Nafarroan, eta bereziki Iruñean, 1960ko hamarkadaren hastapenetan hasi ziren zer edo zer egiten euskararen aldarrikapen eta euskal kulturaren bultzapenetan talde ttipi batzuk. Horien artean berehala azaldu zen Jorge Cortes Izal.

Migel Javier Urmeneta jauna izan zen neurri batean talde mugimendu hura katalizatzen zuena eta harekin batera Jose Agerre, Estornestarrak Joxe eta Bernardo, Celso Torrea, Pedro Diez de Ultzurrun, Aingeru Irigarai, Joxe Martinez Erro; eta geroago, Jose Manuel Lasarte, Jose M^a Satrustegi eta beste batzuk.

Nafarroan euskal kulturaren eta euskararen erabilera publikoaren arloan izugarritzko hutsunea zegoen frankismoaren garaian eta orduan hasi zen taldetxo hura bere hala holako ekintzekin. Alde batetik, bertsolarien eta euskal jaien antolaketan, bestetik, gazteen eta umeen arteko euskararen eta euskal kulturaren bultzapen eta sustapenetan.

Migel Javier Urmeneta diputatu forala izatera iritsi zenean *Principe de Viana* aldizkari kulturalaren euskarazko hileroko gehigarria eratu zuten, Pedro Diez de Ultzurrun medikuaren ardurapean. Zazpi urtez kudeatu zuen Diez de Ultzurrun jaunak osorik euskaraz argitaratzen zen eta doan banatzen zen gehigarri hura; 11.000 harpidedun izatera iritsi omen zen eta gero, iskanbila politiko eta kanpaina baten ondorioz, zuzendaria aldatu zuten eta Martzelino Garde apaizaren ardurapean jarri zutenetik bi edo hiru urtera itxi zuten.

3. Nafarroako ikastolen hastapenetako ezinbesteko lekukotasuna

Beste urrats handi eta garrantzitsua ikastolen sorrera izan zen Nafarroan. Eta urrats honetan protagonismo berezia eduki zuen, beste batzuekin batera, Jorge Cortes Izalek.

Aurrekaria bezala, aipatzekoa da Nafarroan Errepublika garaian bi ikastola sortu zirela; bat, Iruñean bertan Aita Damaso Intza, gero euskaltzaina izanen zenak, Don Manuel Irujo eta Don Ignacio Baleztenak bultzaturik, «EUSKARAREN ADISKIDEAK» izeneko elkartearen eskutik. Aipatuta dago aurrekari hau nire Euskaltzaindiko sarrera hitzaldian, aurrekoa nuen Aita Damaso Intzari buruz egindako aipamenetan. Nafarroako beste ikastola Lizarran izan zen eta bertako irakaslea Doña Juanita Azpirotz andrea izan zen. Gerrate aurreko bi ikastola haiek indarraren bitartez itxiak izan ziren eta Lizarrako ikastolako liburu, koaderno, eserleku, mahai eta pupitreak Lizarrako Foruen plazan egindako sutean erreak gertatu ziren. Eta hara, gerrate hasieran Lizarrako alkate zen, Don Fortunato Agirrek ezin izan zien lagundu, bera harrapatuta zegoelako eta fusilatua gertatuko zelako.

3.1. Gerra ondoreko ikastolen sorrera arazotsua Nafarroan

Gerra ondoreko ikastolen hasiera oso zaila eta arazoz bete izan zen Nafarroa osoan eta bereziki Iruñean.

Jorge Cortes Izalek pertsonalki parte hartu zuen lehendabiziko ekinaldi haietan adorez eta kemenez.

3.1. Iruñeko ikastolen hastapenak.- Lehendabiziko aldir Iruñean ikastola izenarekin hasitako ekinaldia 1960-1961 ikasturtean izan zen, Mugertza familiaren bizietxe partikular batean. Jorge Cortes Izal ekintza hura bultzatzen zuen taldekidea zen eta ikastola xume hartako bost ikasle taldetxo hartan seme zaharrena zegoen. Guardia Zibilak itxi zuen ikastetxe apal hura. Baina ez bakarrik itxi, baizik eta baita etxeko jabearen atxiloketa burutu ere. Jorge Cortes Izalek ihes egin zuen Iparraldera eta gordeta egon zen hilabete inguru, gauzak epaitegian argitu eta itzuli ahal izan zuen arte.

Iruñean ikastola irekitzeko bigarren ekinaldia beste bizietxe batean 1964-65 ikasturtean egin zen. Bigarren honetan ordea, etxe osoa hartu ahal izan zuten; Pozo Blanco karrikako 4 zenbakiko 3. pisuan, Doña Mikaela Gastesi irakasle zutelarik. Lehendabiziko ikasleak: Maribi Reta, Xavier Cortes, Patricia Epaltza, Xavier Etxebeste, Maria Jesus Mangado,

Julio Ezpeleta, Mikel Oraien, Maria Orien eta Jurgi Sarasa izan ziren. Bigarren ekinaldiko ikastola honi izena ipini zioten, –Nuestra Sra. De Ujué– nahiz jende guztiak Iruñeko Ikastola deitzen zion. Bi urtetan 25 ikasletara iritsi zen eta hirugarrenean 50 ikasletara; orduan Salsipuedes karrikara eraman zuten eta beste irakasle batzuk kontratatu. Legezko nortasunari eta legezatzeko ahalgini aurre egitearren «Amigos del Pais» elkartearen babes bilatu zuten. Iruñeko ikastola honen egituraketan lehendakaria Jorge Cortes Izal izendatu zuten eta hala izan zen sei urtez.



Iruñeko ikastolen bilakaeran ondorio handiko hirugarren urrats bat zera izan zen, 1969-70 ikasturteko ahalegina eta haustura. Urte hartan Iruñeko Ikastola bezala ezagututakoak hiru ikastoki zeuzkan, ezin da ikastetxe esan, bat berak ere ez baitzeukan jolastokirik apalena edo beste inolako bitartekorik. Toki bat Baiona ibilbideko behe bat zen; umeak atzeko orube batean jolasten ziren; bestea, Irrintzi dorrea deitzen den eraikuntzako hamalagurrenako lau atiko ziren; umeak atiko hartako terrazatan jolasten ziren; eta hirugarren ikastokia, Barkos etxegileek Motxueloko auzoan doanik utzitako etxepe bat; umeak parke publikoan jolasten ziren. Halere, ikasle kopuruak 350tik gora egin zuen eta asko hazi zitekeelako zantzua hartzen zitzaion. Ni neu anartean, unibertsitateko ikasle eta helduen eskoletako irakasle nintzelarik edo nembelarik, Iruñeko ikastolako batzorde eragileko zeregin batzuetarako kontratatu ninduten (orduko hizketan liberatu egin ninduten eta hilean 5.000 ppta. ematen zidaten gastuetarako.)

1969-70 ikasturte hartan ikastola ikastetxe bezala legezatzzea beharrezkoa eta ezinbestekoa zelako iritzira heldu ginen guztiok. Besterik zen helburu hori nola lortu, besteak beste, ez zirelako inondik inola legezko baldintzak betetzen. Hitz egin zen askorekin, baina bereziki Don Karlos Santamaria idazle eta irakasle donostiarrak azaldu zigun Donostiako «Lizeo

Santo Tomas» delakoaren legeztatzearen ikuspegia eta historia eta bide hura jarraitu zen, zera alegia, irakasle beraren izenean egitea. Zuzendaria Doña Mikaela Gastesi zen eta bere izenean lortu zen legeztapena. Gezurra badirudi ere, legeztapeneko lorpenaren ondorioz areagotu egin ziren eztabaidak eta 1970eko aste santuan bi puska egin zen ikastola: San Fermin Ikastola alde batetik; Paz de Ziganda, bestetik. Ikasleek eta irakasleek aukera egin behar izan zuten. Zuzendaria eta M^a Jose Goñi, Karmele Eneterriaga, Eguzkine Irigoien gelditu ziren Paz de Zigandan; Izaskun Gastesi, Feli Aleman, Arantxa Plazaola, Ernesto Fernandez, Ana Sarobe eta Manoli Peña joan ziren berri berritik sortutako San Fermin ikastolara.

Eztabaida sozialak fruitu anitz eta bitxiak eman zituen urte hartan Euskal Herrian. Esaten zuten EZ DOK AMAIRU taldeak akelarrea egin zuela Larraitzen eta *El Pensamiento Navarro* egunkariak kanpaina egin zuen *Principe de Viana* aldizkariko euskal gehigarriaren aurka: «Ez dok amairu, el akelarre de Larraitz y Principe de Viana» izenburua zeukan bere erasoak. Eta lortu ere, lortu zuen periodiko hark Nafarroako Diputazio Foraleko gehiengoak Pedro Diez de Ultzurrun zuzendaritzatik kentzea. Izan ere, ikastolaren baitan eztanda egindako eztabaida gizarte osoaren eztabaida soziala besterik ez baitzen: Heziketaren konfesionalismoa ala ez, sexu berdintasuna, eta abar

Jorge Cortes Izal eztabaida horren barru barruan gertatu zen eta San Fermina ikastola berrira joan zirenekin bat egin zuen, baina ez zuen han lehendakari bezala jarraitu.

3.2. Urte hartan bertan, 1970ean alegia, Nafarroako beste hainbat herritan ikastolak sortzeko ekimenak bultzatu eta batzuetan gauzatu ziren: Tafallan, 4 ikasle eta irakaslea –Nekane Zelaieta– Iruñetik ordainduz, Lekunberrin, Otsagabian, Etxarri-Aranatzen. Tuteran haurrak bildu ziren, baina 100.000 pzta miserableko gastuari ezin izan zitzaion aurre egin. Lekunberri eta Otsagabia itxi egin ziren, baina Tafalla eta Etxarri-Aranatz harrotasunez betetzeko lorpenak dira.

Jokabidea beti berdintsua izaten zen Jorgeren hitzetan: «–Kaskoa ongi berotu behar zaie dozena erdi bat tenkor kaskailuri. Gero bere gisa joaten da dena.»

4. **Jorge Cortes Izalen barru-barruko kezka eta ardura sakonak**

Jorge nolabait defintizekotan kanpionianoa zela esan beharko litzateke. Euskararekiko ikazgilearen atxikimendukoa, Otsagabia herria eta Zaraitzu harana beti gogoan eta kezkatan zituena, Euskal Herria den gizartean nor-tasun agiriak –tituluak– Nafarroaren baitan ikusten zituena.

Ikastolen mugimenduan bigarren maila batean jarri ondoren, Otsagabiako gizartean kezka asko akuilatzen zuen: zinea jarri zuen eta lanbideak sortzen saiatu zen, zerrategi baten eraikitzea bultzatu nahirik eta abar. Ezinegona eta ezin etsia, beti urrats bat aurrerago zeukan.

Gutziz kezkatua bizi zen Nafarroako Auñamendi, edo Pirinioa bukatzen ari zelako; eta bere kezka egiazkoa da. Uztarrozetik Zubirira 4.000 bizilagun eta adin handikoak besterik ez da bizi.

5. **Aitorpenak eta errekonozimenduak**

Nafarroako gizartean jasotako aitorpenak aipatzeak adierazten du, garai zail haietako lekukotasunak beharko lukeela oraingo garaietan mezua eta ikasbidea:

- 1969an Euskaltzaindiko Urgazle izendatua izan zen.
- 1997an Euskalerrria Irratiaren LARREKO Saria jaso zuen.
- 2004ko urtarrilaren 8an, Nafarroako. Ikastolen Elkartek eta Lizarrako Ikastolak OMENALDIA egin zioten.
- 2004ko ekainaren 28an, Noaingo Borrokaldiaren urteurrenean EUSKARIAKO Domina eman zioten.
- 2008ko maiatzaren 18an, Artaxoako Euskal Astean: JIMENO JURIO saria eman zioten.

6. Cortes Izal eta X. Leteri omenaldi xumea

Lagun bat edo hurbileko bat hiltzen denean, maiz guregan sortzen den sentimendua izaten da esan behar genizkion edo galdetu behar genizkion hainbeste eta hainbeste gauza, ezin izanen dizkiogula gehiago galdetu, beranduegi egin zaigula.

Bizimoduko bide-gurutzetan topo harrigarriak gertatzen dira; eta hara, 1969-70 ikasturtean *El Pensamiento Navarrok* elkartu egiten zituen Lete eta Jorge Cortes Izal zebiltzan bi esparruak: «Ez dok amairu, el akelarre de Larraitz y Principe de Viana»

Olerki bat bientzat batean:

BERANDUA BETI BERANDUEGI DA

Eskua luzatu zenidan laguntza eta losintxa eske
baina orduan eskuak ustez beteak nituen nik
eta laxatu nituenerako
beranduegi zen.

Solasa eskatu zenidan, hizketa eskaini nahirik
baina neure lanetan arras arduraturik ibilki
eta asti bat lortu nuenerako
beranduegi zen.

Zeure bizipen harrigarriak oparitu nahi zenizkidan
nik ordea, unean uneko kezkek lehenetsi nituen eta
aukera aintzat hartzerako
beranduegi zen.

Nozitutik ateratako gaizpentsua adierazten saiatu zinen
baina nik ustez premiazko zereginak neuzkan eta
mezua ulertu baino lehen
beranduegi zen.

Maitasun adierazpena nahi zenuen, denbora joan aurretik
eskaera itxurako presazko eskaintza izaki zeurea
baina nik ulertzerako
beranduegi zen.

Jaramona eskatzen zenidan, arreta pittin bat egin nekizun
baina bioi ihesian zijoakigun denbora ber-bera zela
otu zitzaidanerako
beranduegi zen.

Esker onez diosolari erantzun eta hizketa eskatzen zenidan
ni, ordea, eskari itxurako hura doaneko eskaintza zela
ohartu nintzenerako
beranduegi zen.

Itxaropenik ezaren oihua jaurtiki zenidan elkartasun eske
baina ardurak ez zidaten nirea baizik entzuten utzi eta
etsipena ulertzerako
beranduegi zen.

Isiltasunezko garrasiz so egin zenidan erantzun baten zain
malkoen dirdiran idatzitako sorospen deia, ordea
irakurri ahal zenerako
beranduegi zen.

Oroitzapenen puxika lehertu zaizunean eta oroimena hutsaldu
adimena ezabatu eta hitzik ezaren, bakartasunera
amildu zarenean
horra orain
beranduegi da.

Oroitzapenak norberaren baitan dirade beti gauzatuak
eskarmentuak norberaren bizipenez hornituak dira
eta norbera ez denean nor
orduan jada
orduan beranduegi da.

Nirekoikeriagatik erantzun ezak samina dakarkit orain
erreguak aintzat hartu ez izanak atsekabea dagit

beranduaz jabetzean ordea
orain horra
jada beranduegi da.

Hitza eta oroimena galdurik, zeure baita hutsaldu egin zitzaizun
landare babesgabe eginik, zainak ohean botata
orain bai namaizuke ni
baina horra
orain beranduegi da.

Beranduaren itzulezinak min dagit, min garratza deragit
joandako denborak etsipenaren arantza sartzen baitit
berandu da eta berandua
berez da beti
beranduegi!